Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**LAGUNTZEN DEIALDIA, HEZKUNTZA MINISTERIOAREN BIKAINTASUNERANZKO AIPAMENA ESKATU DUTEN DOKTOREGOETARAKO SARBIDE ZUZENA EMATEN DUTEN UNIBERTSITATE MASTERRETAKO IKASKETAK 2011/2012 IKASTURTEAN UPV/EHUn EGINGO DITUZTEN BRASIL, TXILE, PERU, PUERTO RICO ETA DOMINIKAR ERREPUBLIKAKO IKASLEEN MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO.**

## OINARRIAK

1. LEGE BABESA

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 38.3 artikuluan adierazten denez, unibertsitateek beka, kreditu eta ikasketetarako laguntzak emateko beren sistema garatu ahal izango dute.

Bestalde, UPV/EHUren Estatutuetako 81. artikuluaren arabera, UPV/EHUk lankidetza programak bultzatuko ditu, egoera larriagoetan dauden herrialde eta herrietako ikasleek unibertsitatean ikasteko aukera izan dezaten eta aurrerapen eta hobekuntzan laguntzako, betiere, lankidetza esparruaren barruan.

Azkenik, UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2003ko irailaren 2ko erabakiaren bidez agindua eman zen EHAAn argitaratzeko bekei buruzko UPV/EHUko arautegia, behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartu zuena. Aipatu erabakiko 9. artikuluak dioenez, ikasketetarako diru-laguntzak eta laguntza orokorrak eman dakizkieke ikastegi, sail edo institutuetako ikasleei.

2. DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honek Hezkuntza Ministerioaren Bikaintasuneranzko Aipamena eskatu duten doktoregoetarako sarbide zuzena ematen duten unibertsitate masterretan 2011/2012 ikasturtean izena eman eta matrikula egiten duten ikasleen mugikortasuna erraztea du helburu. UPV/EHUk aipamen hori eskatu duten 44 unibertsitate master emango ditu.

Egokitzat jo da Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarraren eta UPV/EHUren arteko hitzarmena egitea, UPV/EHUk eta Brasil, Txile, Peru, Puerto Rico eta Dominikar Errepublikak hezkuntza eta zientzia arloan elkarlanean jardun dezaten, UPV/EHUk horietan presentzia aktiboa baitu, Latinoamerikan Master eta Doktorego Programak abiarazteko unibertsitate eta erakunde ezberdinekiko hitzarmenen bitartez.

**CONVOCATORIA DE AYUDAS ECONÓMICAS A LA MOVILIDAD PARA ESTUDIANTES DE BRASIL, CHILE, PERÚ, PUERTO RICO Y REPÚBLICA DOMINICANA, QUE CURSEN ESTUDIOS DE MÁSTER UNIVERSITARIO EN LA UPV/EHU EN EL CURSO ACADÉMICO 2011/2012 QUE POSIBILITE EL ACCESO DIRECTO A DOCTORADOS QUE HAYAN SOLICITADO LA MENCIÓN HACIA LA EXCELENCIA DEL MINISTERIO DE EDUCACIÓN.**

## BASES

1. AMPARO LEGAL

El artículo 38.3 de la ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco señala que las universidades podrán desarrollar su propio sistema de becas, créditos y ayudas al estudio.

Por su parte, el artículo 81 de los Estatutos de la UPV/EHU dispone que la UPV/EHU fomentará programas de cooperación para el acceso a la misma de estudiantes procedentes de países y pueblos desfavorecidos, con el objetivo de contribuir a su progreso y mejora en el marco de la colaboración establecida a estos efectos.

Finalmente, el art. 9 de la Resolución de 2 de septiembre de 2003, del Secretario General de la UPV/EHU, por el que se ordena la publicación en el BOPV del Reglamento de Becas de la UPV/EHU aprobado por el Consejo de Gobierno Provisional en su sesión de 13 de mayo de 2003 ampara la concesión de bolsas y ayudas al estudio de carácter general a los alumnos de un Centro, Departamento o Instituto.

2. OBJETIVO DE LA CONVOCATORIA

El objetivo de esta convocatoria es facilitar la movilidad del estudiante que esté en primera instancia preinscrito y posteriormente matriculado en Másteres Universitarios de la UPV/EHU en el curso académico 2011/2012 que posibilite el acceso directo a Doctorados que hayan solicitado la Mención hacia la Excelencia del Ministerio de Educación. La UPV/EHU, impartirá 44 Másteres Universitarios que han solicitado dicha Mención.

Se considera pertinente, establer un Convenio entre la Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado y la UPV/EHU en aras a la cooperación en materia educativa y científica entre la UPV/EHU y los países de Brasil, Chile, Perú, Puerto Rico y República Dominicana con los que la UPV/EHU mantiene presencia activa estableciendo Convenios con diferentes Universidades e Instituciones, para la puesta en marcha de Programas de

| | |
|---|---|
| | Másteres y Doctorados en Latinoamerica. |
| Diru laguntza hau eskatu ahal izango dute Hezkuntza Ministerioaren Bikaintasuneranzko Aipamena eskatu duten doktoregoetarako sarbide zuzena ematen duten unibertsitate master baten ikasturte osorako izena eman eta matrikula egiten duten ikasleek. | Podrán solicitar estas ayudas aquellos estudiantes que se preinscriban y posteriormente se matriculen del curso completo en un Máster Universitario que posibilite el acceso directo a Doctorados que hayan solicitado la Mención hacia la Excelencia del Ministerio de Educación. |
| Diru laguntza urteko 4.500 eurokoa izango da eta onuradunak salbuetsita egongo dira masterreko prezio publikoak ordaintzetik. | Las ayudas consistirán en una dotación de 4.500,-€/año así como la exención de los precios públicos del Máster. |
| 90 edo 120 ECTS kredituko masterrak amaitzeko ikasturte bat baino gehiago behar dutenez, bertan matrikulatutako onuradunek epealdi horretarako zuzkidura gehigarria lortu ahal izango dute, baita prezio publikoen salbuespena ere. Kasu guztietan, laguntza hori jaso ahal izateko, aurreko ikasturteko kreditu guztiak gainditu eta aprobetxamendua egiaztatu beharko da. | Los beneficiarios/as matriculados/as en Másteres de 90 o 120 créditos ECTS, cuya finalización implica un periodo superior a un curso académico, podrán optar a una dotación adicional para este periodo, que será proporcional a la duración del curso, además de la exención de los precios públicos. En todos los casos la concesión de esta ayuda estará condicionada al aprovechamiento y superación íntegra de los créditos del curso anterior. |
| Deialdi hau urtero egingo da, betiere, horretarako aurrekontu kredituri badago eta kasuan kasuko hitzarmena sinatzen bada. | Esta convocatoria se realizará anualmente, condicionada a la existencia de crédito presupuestario para estos fines y a la firma del correspondiente convenio. |
| Aurrekonturik badago, Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarrak eta UPV/EHUk hitzarmena onartu baino ez dute egin beharko deialdiak egin ahal izateko, betiere, deialdi horiek deialdi honetan zehaztutako baldintzekin bat badatoz. | En la medida en que exista disponibilidad presupuestaria, se podrán realizar convocatorias mediando únicamente la preceptiva aprobación del convenio por parte de la Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado y la UPV/EHU, siempre y cuando dichas convocatorias se correspondan con los términos especificados en la presente. |
| 3. HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK | 3. REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES |
| Eskaerak aurkezteko xedatutako epearen barruan, laguntza hauek lortzeko hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: | Los/as aspirantes a estas ayudas deberán reunir, dentro del plazo establecido para presentar las solicitudes, los siguientes requisitos: |
| a) Honako herrialde hauetakoren bateko nazionalitatea edukitzea: Brasil, Txile, Peru, Puerto Rico eta Dominikar Errepublika. | a) Tener la nacionalidad de alguno de los siguientes países: Brasil, Chile, Perú, Puerto Rico y República Dominicana. |
| b) Hezkuntza Ministerioaren Bikaintasuneranzko Aipamena eskatu duten doktoregoetarako sarbide zuzena ematen duten UPV/EHUko masterretan sartzeko behar duten titulazioa gaindituta edukitzea, matrikula egiteko orduan | b) Tener superada la titulación por la que accederá a los estudios de Máster Universitario que posibilite el acceso directo a Doctorados que hayan solicitado la Mención hacia la Excelencia del Ministerio de Educación en el momento de formalizar la matrícula. |
| c) Deialdi honetan sartzen den unibertsitate master baten izena emanda izatea | c) Haber realizado la preinscripción en un Máster Universitario que participe en esta convocatoria. |
| d) Kalitate Aipamena duen doktoregoen prestakuntza aldia osatzen duten UPV/EHUko masterretarako ikasketak 2010/2011 ikasturtean egin dituzten Brasil, Txile, Peru, Puerto Rico eta Dominikar Errepublikako ikasleen | d) No haber sido beneficiario de la ayuda a la movilidad para estudiantes de Brasil, Chile, Perú, Puerto Rico y República Dominicana que cursen estudios de máster universitario que constituyen el período formativo de |

| | |
|---|---|
| mugikortasunerako diru laguntza jaso ez izana. | doctorados con mención de calidad en la UPV/EHU en el curso académico 2010/2011. |
| 4. ESKAERAK AURKEZTEA | 4. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES |
| 4.1. **Eskaerak aurkezteko epea**. Eskaerak **2011ko maiatzaren 12tik ekainaren 6ra arte** aurkeztu ahal izango dira. | 4.1 **Plazo de presentación**. Las solicitudes podrán presentarse **del 12 de mayo al 6 junio de 2011**. |
| Eskaerak, adierazitako dokumentuekin batera, UPV/EHUko Akademia Antolakuntzako errektoreordeari zuzenduta aurkeztuko dira. | Las solicitudes estarán dirigidas a la Vicerrectora de Ordenación Académica de la UPV/EHU, con los documentos que se indican: |
| 4.2. **Dokumentuak**. | 4.2 **Documentos**. |
| a) Atal honen amaieran adierazitako Interneteko helbidean eskuragarri dagoen ereduaren araberako eskaera (1. dokumentua).<br>b) NANaren edo pasaportearen fotokopia.<br>c) Ikasketen ziurtagiri pertsonala. Bertan, karrerako irakasgai guztien emaitzak eta deialdiak agertuko dira. Agiria, gainera, bide diplomatikoz legeztatuta egon beharko da.<br>d) Curriculum vitae, eredu arautuan egina (2. dokumentua).<br>e) Eskatzailearen unibertsitatearen erreferentzia gutuna, ikaslearen ibilbidea ezagutzen duen irakasle batek sinatua.<br>f) Izena eman izanaren frogagiriaren fotokopia. | a) Solicitud según el modelo (documento 1), disponibles en las direcciones de Internet, señaladas en la parte final de este apartado.<br>b) Fotocopia del DNI o Pasaporte.<br>c) Certificación Académica Personal con indicación de las calificaciones y convocatorias de todas las asignaturas de la carrera, debidamente legalizada por vía diplomática.<br>d) Curriculum Vitae según modelo normalizado (documento 2).<br>e) Carta de referencia de la Universidad con la que esté vinculado el solicitante, firmada por un profesor que conozca la trayectoria del solicitante.<br>f) Fotocopia del resguardo de preinscripción. |
| Deialdi honetako dokumentu guztiak Interneteko helbide hauetan daude eskuragarri: | Toda la documentación respecto a esta convocatoria está disponible en las siguientes direcciones de Internet: |
| http://www.ikasketak.ehu.es/p266-content/eu/contenidos/informacion/convocatorias_doc_vregp/eu_convocat/upv_ehu.html | http://www.ikasketak.ehu.es/p266-content/es/contenidos/informacion/convocatorias_doc_vregp/es_convocat/upv_ehu.html |
| http://www.auip.org/index.php?option=com_content&task=view&id=286&Itemid=197%3E | http://www.auip.org/index.php?option=com_content&task=view&id=286&Itemid=197%3E |
| 4.3 **Eskaerak aurkezteko lekua**. | 4.3 **Lugar de presentación.** |
| Dokumentu guztiak eta eskaera orria posta elektronikoz bidali behar dira (PDF formatuan) Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarrera: becas.auip@usal.es. Bestalde, prozesuko edozein unetan eskatzaileei eskatu ahal izango zaie jatorrizko dokumentazioa bidaltzeko AUIPren egoitza nagusira (Salamanca, Espainia). | Toda la documentación junto con el formulario de solicitud tendrá que ser remitida en formato electrónico (PDF) a la Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado (AUIP) a la dirección becas.auip@usal.es Adicionalmente, en cualquier momento del proceso se podrá requerir al solicitante el envío de la documentación original a la dirección postal de la Sede Central de la AUIP en Salamanca (España) |
| AUIPek eskaria jaso izanaren agiria bidaliko dio eskatzaileari posta elektronikoz. | La AUIP confirmará por correo electrónico dirigido al solicitante la recepción de la solicitud |
| 5. ESKAERAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK. | 5.- CRITERIOS DE VALORACIÓN |
| Gehienez ere, 13 diru laguntza emango dira Hezkuntza | Se otorgarán un máximo de 13 ayudas para los 44 |

| | |
|---|---|
| Ministerioaren Bikaintasuneranzko Aipamena eskatu duten doktoregoetarako sarbide zuzena ematen duten 44 unibertsitate masterretarako. Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: | Másteres Universitarios que posibiliten el acceso directo a Doctorados que hayan solicitado la Mención hacia la Excelencia del Ministerio de Educación, en base a los siguientes criterios: |
| a) Ikasketa espedientea (70 puntu gehienez).<br>b) Ikasleak egindako lanak, artikuluak edo argitalpenak (30 puntu gehienez). | a) El expediente académico (hasta 70 puntos).<br>b) Trabajos, artículos o publicaciones realizadas por el estudiante (hasta 30 puntos). |
| Masterreko Batzorde Akademikoak balioetsi eta ezarriko du ikasle bakoitzarentzako puntuazioa, Graduondoko Ikasketen eta Etengabeko Prestakuntzaren Atalak master bakoitzerako aurkeztutako eskaerekin batera igorriko duen baremoa aplikatuz | La Comisión Académica del Máster será la encargada de valorar y establecer una puntuación para cada estudiante, aplicando el baremo que se remitirá desde la Unidad de Estudios de Postgrado y Formación Continua, junto con las solicitudes presentadas para cada Máster. |
| 6. LAGUNTZAK ESLEITZEA. | 6.- ADJUDICACIÓN DE LAS AYUDAS |
| Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarrak eskariak aztertuko ditu eta begiratuko du ea eskatzaileek dokumentazio guztia aurkeztu duten. Erakunde honek berak proposatuko du nori eman diru laguntza. | El análisis y la propuesta de selección de las personas beneficiarias, se realizará, en primera instancia, por la Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado que revisará que la documentación aportada es la requerida para esta convocatoria. |
| Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarrak UPV/EHUri bidaliko dio hautagaien zerrenda. | La Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado remitirá a la UPV/EHU la lista de condidatos. |
| Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarrak aukeratutako eskaerak master bakoitzeko ikasketa arduradunei bidaliko zaizkie, Batzorde Akademikoak eskabideak aldez aurretik onartu eta lehenetsi ditzan. | Las solicitudes previamente seleccionadas por la Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado, serán remitidas a los Responsables Académicos de cada Máster, para que la Comisión Académica del mismo realice la preadmisión y priorización de las citadas solicitudes. |
| Diru laguntzak UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeak emango ditu. Horretarako, masterretako batzorde akademikoek aldez aurretik onartu dituzten ikasleak eta masterrean homologatu gabeko titulazio atzerritarra aurkeztean UPV/EHUko Doktorego Azpibatzordearen osteko onarpena behar duten ikasleak hartuko ditu kontuan. | La concesión de las ayudas entre los alumnos que han sido preadmitidos por las Comisiones Académicas de los Másteres y cuenten con la posterior admisión de la Subcomisión de Doctorado de la UPV/EHU, para aquellos solicitantes que accedan al Máster con titulación extranjera no homologada, corresponderá a la Subcomisión de Doctorado de la UPV/EHU. |
| Hitzarmeneko hirugarren eta laugarren klausulen arabera eta UPV/EHUko errektorearen 2011ko otsailaren 25eko erabakiak, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko denak, lehen puntuko 1.1 zenbakian dioenaren arabera, diru laguntzak Akademia Antolakuntzako errektoreordeak esleituko ditu ebazpen bidez, Batzordearen proposamena kontuan hartuta. | De conformidad con la cláusula Tercera y Cuarta del Convenio, así como del punto primero, Nº 1.1 de la Resolución de 25 de febrero de 2011, del Rector de la UPV/EHU, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias, las ayudas serán adjudicadas mediante Resolución por la Vicerrectora de Ordenación Académica, a propuesta del Comité. |
| 7. ERABAKIA. | 7.- RESOLUCIÓN |
| Akademia Antolakuntzako errektoreordeak deialdia ebatziko du, eta 2011ko uztailaren lehenengo hamabostaldian emango du hautaketaren emaitzaren berri, deialdi honetako 4.2 atalean zehaztutako unibertsitatearen eta Graduondoko Ikasketen Unibertsitate Elkarte | La Vicerrectora de Ordenación Académica, resolverá la convocatoria y dará a conocer el resultado de la selección en la primera quincena del mes de julio de 2011 a través de las páginas Web de la Universidad y de la Asociación Universitaria Iberoamericana de Postgrado, descritas en |

| | |
|---|---|
| Iberoamerikarraren web orrien bitartez.<br><br>Aukeratutako hautagaiek astebeteko epea izango dute laguntza onartzeko. Onarpen hori idatziz egingo dute, eta deialdiko 8.5 atalean zehaztutako klausula agertuko da bertan.<br><br>Errektoreordearen erabakiaren aurka, honako errekurtso hauek aurkez daitezke:<br><br>a) Nahi izanez gero, **berraztertzeko errekurtsoa** aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116.1 artikulua); errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, administrazio isiltasunez errekurtsoa ezetsitzat jo dela ulertu beharko da.<br><br>b) Zuzenean, **administraziorekiko auzi errekurtsoa** aurkez daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki honen inguruko jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legearen 8.3 eta 14.1 artikuluetan (lehenengo irizpidean) adierazitakoarekin bat etorriz.<br><br>8. LAGUNTZAREN EZAUGARRIAK ETA ONURADUNEN ARAUBIDEA.<br><br>8.1. Honako gastu hauek diru laguntzaren onuradunaren kontura izango dira: joan-etorriak, ostatua, elikadura, mantenua eta beste gastu pertsonal batzuk; esate baterako, gaixotasun aseguruaren estaldura, aseguruak estaltzen ez dituen medikuntza gastuak, liburuak eta beste eskola material batzuk.<br><br>Onuradunaren kontu joango dira Espainiara sartzeko bisatuaren tramiteak.<br><br>8.2. Diru laguntza hauek bateraezinak izango dira Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Estatutuak arautuako doktorego aurreko bekarekin.<br><br>8.3. Diru laguntza esleitzean, onuradunak matrikulatuta egon beharko du eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:<br><br>a) Diru laguntza jasotzeko bateraezintasunik ez duela egiaztatzeko zinpeko aitorpena (3. dokumentua).<br><br>b) Diru laguntza eta deialdian xedatutako baldintzak eta betebeharrak onartzen direla ziurtatzen duen interesdunaren aitorpena (4. dokumentua). | el apartado 4.2 de esta convocatoria.<br><br>Los candidatos seleccionados tendrán un plazo de una semana para aceptar la ayuda. Esta aceptación se realizará por escrito e incluirá una cláusula descrita en el apartado 8.5 de la convocatoria.<br><br>Contra la Resolución de la Vicerrectora, cabe interponer los siguientes recursos:<br><br>a) Potestativamente, el **recurso de reposición** que autoriza el artículo 116.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en el plazo de 1 mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación ante el Rector de la UPV/EHU, el cual se entenderá desestimado por silencio negativo, una vez transcurrido 1 mes desde su interposición sin notificarse la resolución expresa del mismo.<br><br>b) Directamente, **recurso contencioso administrativo** ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Bilbao en el plazo de 2 meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación de la resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artº 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades y en los artículos 8.3 y 14.1, regla primera, de la vigente Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, de 13 de julio de 1998.<br><br>8.-CARACTERÍSTICAS DE LA AYUDA Y REGIMEN DE LOS/LAS BENEFICIARIOS/AS<br><br>8.1 Los gastos de desplazamiento, alojamiento, alimentación y manutención y otros gastos personales, incluyendo la cobertura de seguro de enfermedad, gastos médicos no cubiertos por el seguro, libros y otro material escolar, correrán a cargo de cada beneficiario/a de la ayuda.<br><br>Los/as beneficiarios/as deberán hacerse cargo de tramitar la obtención del visado de entrada en España.<br><br>8.2 Estas ayudas no son compatibles con el disfrute de una beca predoctoral regulada por el Estatuto de Personal Investigador en Formación.<br><br>8.3 En el momento de la adjudicación de la ayuda, el beneficiario/a deberá estar matriculado y presentar:<br><br>a) Declaración jurada de no estar sujeto a incompatibilidad en la percepción de la ayuda (documento 3).<br><br>b) Declaración individualizada de aceptación de la ayuda y de las condiciones de disfrute y obligaciones previstas en la convocatoria (documento 4). |

| | |
|---|---|
| c) Onuradunaren bankuko datuak: banketxea, bulegoa, dirua sartzeko kontu zenbakia eta titularraren NANa edo pasaportea (5. dokumentua). | c) Datos bancarios del beneficiario: entidad, sucursal y nº de cuenta en la que debe realizarse el ingreso (documento 5). |
| 8.4. Diru laguntza jasotzeak ez dakar inolako kontratu harremanik onuradunaren eta UPV/EHUren artean, eta 8.2 atalean aipatutako bekarekin bateraezina izango da. | 8.4 La adjudicación de la ayuda no supone relación contractual alguna entre el/la beneficiario/a y la UPV/EHU, y será incompatible con el disfrute de la beca mencionada en el apartado 8.2. |
| 8.5 Diru laguntza jasoz gero onuradunak konpromisoa dauka masterreko ikasturte osoa egiteko eta gutxienez eskola zamaren %50 gainditzeko. Konpromiso hori bete ezean, bertan behera geratuko da diru laguntza. | 8.5 La concesión de esta ayuda supone para el/la beneficiario/a el compromiso de realizar el curso académico completo del Máster Universitario y superar al menos, el 50% de la carga lectiva del mismo. Dicho incumplimiento será causa de revocación de la ayuda. |
| Onuradunak konpromisoa izango du matrikula baliogabetuz gero diru laguntzaren %50 itzultzeko (diru laguntza eta prezio publikoak), salbu eta matrikula baliogabetzeko arrazoia nahikoa eta behar bezala justifikatua denean hitzarmen honetako laugarren klausularen bidez eratutako batzordearen ustez. | La persona beneficiaria de la ayuda se compromete a la devolución del 50% de la misma, (ayuda y precios públicos) en caso de **anulación de matrícula,** salvo causa suficiente y debidamente justificada a juicio del Comité establecido en la cláusula Cuarta del Convenio. |
| 8.6. Diru laguntza ordainketa bakar batean ordainduko da, onuradunak 3, 4, eta 5 dokumentuak aurkezten dituenean. Dokumentu horiek, hain zuzen ere, unibertsitatearen web orrian egongo dira eskuragarri helbide hauetan: | 8.6 El importe de la ayuda se abonará en un solo pago, una vez que el/la beneficiario/a haya presentado los documentos 3, 4 y 5 que estarán disponibles en las siguientes direcciones de Internet: |
| http://www.ikasketak.ehu.es/p266-content/eu/contenidos/informacion/convocatorias_doc_vregp/eu_convocat/upv_ehu.html | http://www.ikasketak.ehu.es/p266-content/es/contenidos/informacion/convocatorias_doc_vregp/es_convocat/upv_ehu.html |
| http://www.auip.org/index.php?option=com_content&task=view&id=286&Itemid=197%3E | http://www.auip.org/index.php?option=com_content&task=view&id=286&Itemid=197%3E |
| 8.7. Onuradun izateari utziko diote honako arrazoi hauengatik: | 8.7 La condición de beneficiario/a se perderá por alguna de las siguientes causas: |
| a) Uko egitea (6. dokumentua).<br>b) Ezeztapena, eginbeharrak ez betetzeagatik edo erabakian kontuan hartutako baldintzak aldatzeagatik.<br>c) Bat-batean sortutako bateraezintasuna. | a) Renuncia (documento 6).<br>b) Revocación por incumplimiento de obligaciones o por variación de las condiciones que se tomaron en cuenta para su concesión.<br>c) Incompatibilidad sobrevenida. |
| Onuraduna b) edo c) egoeran agertzen bada, espedientea izapidetuko da. Harekin bat, interesdunari entzunaldia eskainiko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatutakoarekin bat. | La concurrencia de las circunstancias b) o c) dará lugar a la tramitación de expediente en el que se dará audiencia al interesado conforme prevé la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. |
| 9. ERREGIMEN JURIDIKOA. | 9.- RÉGIMEN JURÍDICO |
| Deialdi honetako oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztian, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua hartuko da kontuan, baita ezarri beharreko gainerako guztiak ere. | En lo no previsto en las bases de esta convocatoria se aplicará el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y de más que le sean de aplicación. |
| Leioa, 2011ko maiatzaren 12a. | Leioa, 12 de mayo de 2011 |